

2018ko azaroa



**Azaro Fundazioak bostgarren aldiz parte hartu du hizlari gisa** azaroaren 15 eta 16an Bilbon ospatu den **VISIO Biltzarrean**

. Aurten bere zazpigarren edizioa bete duen eta **mundu osoko profesional eta erakundeak biltzen dituen Biltzar hau erreferente bat bilakatu da**

orain arte

**zaintza teknologikoa eta adimen lehiakorra bezala ezagutzen genituen arloetan.**

**Aurrerantzean Nazioarteko Biltzar honetan azpimarratu duten bezala eta arau berriak dioen legez,**

***zaintza eta adimena***

**terminoekin ezagutuko dira esparru hauek.**

VISIO Biltzarrearen bigarren eguna Azaro Fundazioaren ponentziarekin ireki zuten. Iñaki Liebana eta Leire Aranaetxeberria, Azaroko teknikariek, enpresa eta erakundeetan zaintza eta adimenak duen garrantzia azpimarratu zuten bertaratuen aurrean. Izan ere, **Azarok enpresen barne eta kanpo informazioa automatizatu eta kudeatzen duen Intool izeneko erreminta propioa garatuta dauka**

**automatizatu eta kudeatzen duen Intool izeneko erreminta propioa garatuta dauka**

. Erreminta honek ezagutza sortu eta etengabeko berrikuntza dinamika bat ezartzen laguntzen die enpresei eta, azken urteetan bereganatutako esperientziari esker, adimeneko sistema bat txertatzean ikasitako lezioak transmititu zituzten Bilbon. Biltzarrean parte hartu eta ekitaldian stand propioa jartzeak, garrantzia handiko eragile gisa kokatzen du Azaro Fundazioa zaintza eta adimenaren alorrean.

Hortaz, Azaro Fundazioak INTOOL erremintaren aldeko apustua egiten jarraituko du eta berau hobetzeko baliabideak ere jartzen jarraituko du. Ahalegin honi esker Azarok mota honetako ekimenetan eta Europa mailan antolatzen diren beste batzuetan ere parte hartzen du (SCIP Europe eta ICI Conference), beti ere, inguruko enpresa-ehuna berritzea eta indartzea helburu hartuta.

